



KANALAK

Gure enpresaren Kanal propioak, zuzenak eta zeharkakoak erabiliko ditugu. Komunikazio kanalari eta salmenta kanalari dagokionez, kanal zuzenak eta propioak erabiliko ditugu gure produktuak bezeroei iristeko. Bestalde, banaketa kanalari dagokionez, alde batetik kanal propioak eta zuzenak erabiliko ditugu, gure produktuak bezeroek denda fisiko batean eskurtzeko aukera dutelako eta bestetik, zeharkako kanalez baliatuko gara bezeroren batek online erosten duenean, produktua bere herrialdera iristeko.

KOMUNIKAZIO KANALAK

Sare sozial desberdinak erabiliko ditugu gure Pikler jostailu denda ezagutarazteko. Bestalde, gure web orria sortuko dugu, saltzen ditugun material eta objektuak online ere saltzeko. Gure aldizkari propioa izango dugu. Aldizkari honetan, saltzen ditugun produktuen argazkia, deskribapena eta prezioa agertuko da. Horrez gain, gure enpresan erabiltzen dugun metodologiaren, hau da, Pikler metodologiaren informazio esanguratsua agertuko da.

BANAKETA KANALAK

Gure produktuak dendan erosteko aukera izango dute eta baita ere online eskatu dezakete. Alde batetik, dendan erosten dituzten produktuei dagokionez, gu izango gara produktu hauek zuzenean saltzen dituztenak. Bestalde, online salmentari dagokionez, garraio enpresa batetaz baliatuko gara, gure produktuak bezeroei banatzeko.

SALMENTA KANALAK

Lokal bat alokatuko dugu, gure jostailu denda fisikoki izateko. Bestalde, gure web orrian jostailu edo altzariak erosteko aukera ere izango dute. Web orrian, jostailu edo altzarien argazkia, produktuaren deskribapena eta prezioa agertuko da.